



BARDOAK 2018. Nafarroako taldekako bertso egitasmoa

Aurkezpena

2012an sortu zen Bardoak Nafarroako taldekako bertso egitasmoa, herrialdeko bertso-eskolen sarea indartu asmoz. Orduetik, bi urtean behin antolatzen da, auzolana eta talde lana oinarrian jarritz. Modu horretan, bertsolaritza beste modu batera lantzeko aukera ematen da, bertsolari eta bertsozaleen harrobia sustatuz, gune berriak barneratuz eta molde parte-hartzaileak praktikan jarritz.

Bere xumean, handia da Bardoak 2018. **16 talde eta 113 parte hartzaile izango ditu, eta horietatik 74 izango dira bertsolariak.** Beteranoak gazteekin nahasiko dira, eta ibilbide luzeokoa hasi berrieekin aterako dira plazara. **Osotara, 23 saio** izango dira. Kopuruek ongi erakusten dute Nafarroako bertso mugimenduaren osasuna. Are, bertsolaritzaren transmisioan jarritako arreta eta indarraren fruitu dira. Bestelako gailurren oinarri dira bertso-eskolak eta tokian tokiko plazak, eta oinarri hori sendoa dela erakusten du Bardoak 2018 egitasmoak. Horren bidetik etorriko dira fruitu berriak ere.

Bertso-eskolekin batera, ezinbestekoa da ere Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuarekin eta tokian tokiko udal eta mankomunitateekin elkarlanean, ikastetxetan egiten duen lana. 'Bertsolaritza irakaskuntzan' programaren bitartez, Nafarroa osoko 2.600 ikasle inguruk lantzen dute bertsoa eskola orduetan, 39 udalerritako 58 hezkuntza zentroetan. Ongarri ezinbesteko horren ondorio da neurri batean bertso-eskolen sarea, eta baita Bardoak egitasmoa ere.

Otsailaren 2an Beran hasi eta martxoaren 24an bukatuko da Bardoak 2018, Lekunberrin. Finala, lehiaz harago, Nafarroako bertsolaritzaren eta euskal kulturaren festa handia izango da.

Iritsi dira Bardoak plazara, haien kantua entzunaraziz. Haiekin gozatzeko tenorea da.

Helburuak

Bertso-eskoletatik abiatuta, **bertso-eskolen sarea eta bertsozaletasuna indartzeko xede** du Bardoak 2018 egitasmoak. Era horretan, **bertsolari eta bertsozaleen harrobia berritzea** da helburu, **bertsolari berriei plazak eskainiz eta bertsolari eskarmentudunekin kantatzeko aukera emanez**, eta hala, bertsoaren sarea trinkotuz. Era berean, bertsozaleari **bertsolaritzaz gozatzeko aukera berritzailea eskaintzeko asmoa** du ere Bardoak 2018 taldekako egitasmoak, Nafarroako kultur eskaintzan bere tokia egonkortuz.

Ezaugarri nagusiak

- Datuei erreparatuta, *Bardoak 2018*k abiapuntu ikusgarria du: **16 taldek** hartuko dute parte, **113 parte-hartzailerekin**. Guztira, **74 bertsolari** aterako dira plazara, inoizko kopururik handiena. Eta saio kopurua ere ez da nolana hikoia, bi hilabetetan **23 saio** izanen baititu taldekako txapelketak.
- Lehen fasea otsailaren 2tik otsailaren 18ra bitarte jokatu da, 16 saiorekin. Bigarren fasea berriz, martxoaren 2tik martxoaren 11ra, 6 saio antolatuz. Eta finala, martxoaren 24an jokatu da.
- 16 talde parte-hartzaileak bost multzotan banatuta egongo dira. Hala, talde bakoitzak bere multzoko bi talderekin egingo ditu saioak, bat "etxean" eta bestea "kanpoan". Bigarren fasera multzo bakoitzeko talde bana eta F multzoko bi talde pasako dira (*ikus* 'Txapelketaren egitura' atala), guztira sei talde. Bigarren fasean joan-etorriko saioak antolatuko dituzte taldeek, eta hiru sailkatuko dira finalera.
- Finala salbu, saioak elkarre girokoak izango dira, hurbilak, gozoak eta berritzaileak. Kasu gehienetan, gainera, saio horiek otorduekin osatuko dira.
- Aurreko edizioetan bezala, talde lana eta auzolana izango da ekimenaren oinarria. Gutxienez bost partaide ditu talde bakoitzak: hiru bertsolari, gai-jartzaile/aurkezlea eta taldeko ordezkaria. Hortik aurrera, nahi adina kide. Taldeak halaber, eskualdekako bertso-eskolen arabera osatu dira.
- Hori dela eta, talde lana da bertsolariak saioetan egin beharko dutena, denen artean banatu beharko baitituzte egin beharreko ariketak. Ibilbide luzeko bertsolariak zein hasi berriak nahastuta, taldeak izango du garrantzia.
- Epailera sistemari dagokionean, ez da bakarkako txapelketako sistema erabiliko. Lehen faseko saio bakoitzean, beste multzo bateko talde bateko bi kidek epaituko dute saioa, puntuaziorik jarri gabe, soilik ariketaz ariketa talde onena aukeratuta. Horiekin batera, entzuleek ere saioan hobekien nor aritu den baloratzeko aukera izanen dute. Bi horietatik aterako da saio bakoitzeko irabazlea.
- Talde bakoitzak gutxienez bi saiotan kantatzeko ardua izango du, bai eta etxeko saioa antolatu zein berau aurkezteko erantzukizuna. Honekin batera, beste multzo bateko saio baterako gaiak prestatuko dituzte taldeek, eta saio batean epaile lanak egingo dituzte.

Parte hartzaileak

Addams familia (Baztan-Malerreka)

Bertsolariak: Iker Gorosterrazu Elizagoien, Amaia Elizagoien Varela, Egoitz Gorosterrazu Elizagoien eta Alazne Untxalo Erregerena.

Aurkezlea: Maialen Kamino Elizagoien.

Antolatzaileak: Lierni Oteiza Migeltorena, Maialen Belarra Eneterreaga.

Aldatzea komeni (Leitza)

Bertsolariak: Diego Riaño Barroso, Mikel Azpiroz Hernandorena, Aitzol Eizmendi Astibia, Xabat Illarregi Marzol eta Joanes Illarregi Marzol.

Aurkezlea: Migel Mari Elozegi Irurtia.

Antolatzaileak: Ander Fuentes Mujika.

Amortziaren elioyak (Hendaia-Auritz-Lesaka)

Bertsolariak: Kristiñe Txoperena Iribarren, Maddi Ane Txoperena Iribarren, Josu Txoperena Iribarren eta Aimar Karrika Iribarren.

Aurkezlea: Arkaitz Karrika Iribarren.

Antolatzaileak: Aimar Karrika Iribarren eta Maddi Ane Txoperena Iribarren.

Barakinak (Barañain)

Bertsolariak: Mintxo Astiz Goñi, Pablo Perez Indurain, Lizar Aleman Sadaba, Ander Baiano Saralegi.

Aurkezlea: Ion Erro Arbizu.

Antolatzailea: Lorea Luzea Diaz.

Barañetak (Barañain)

Bertsolariak: Jon Arrizibita Perez, Sahats Aleman Sadaba, Iñigo Aranguren Oroz 'Pika' eta Iker Mundiñano Galarza.

Aurkezlea: Maier Baiano Saralegi.

Antolatzailea: Itziar Isasi Balanzategi.

Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi (Bera)

Bertsolariak: Patxi Castillo Graziarena, Aitor Elexpuru Egaña eta Julen Zelaieta Iriarte.

Aurkezleak: Ainhoa Larretxea Agirre eta Ekhine Zapiain Arlegi.

Antolatzaileak: Jokin Pinatxo Olaziregi eta Estitxu Uranga Gaston .

(Larraun da Araitz) Bi dozena (Larraun-Araitz)

Bertsolariak: Luis Mari Larreta Amundarain, Juan Mari Irastortza Garaño, Aitor Irastortza Arrizurieta, Joana Ziganda Olano, Arkaitz Goikoetxea Arriola, Maddi Urrea eta Joxe Mugiro.

Aurkezleak: Ainhoa Iriarte Gorostegi, Kizkitza Mujika Martin, Maddi Urrea Albizu eta Joxe Mugiro Sorabilla.

Antolatzaileak: Mikel Huarte Martija, Juan Kruz Martirena Sagastibeltza, Haydde Calderon Garralda, Igor Mitxaus Nieto eta Felipe Uriarte Camara.

Lizaharrak (Lizarra)

Bertsolariak: Ekhiotz Prieto Otxoa, Pello Etxaniz Iturbe, Ander Aranburu Arriola, Egoitz Galarza Garaialde eta Aitor Irazustabarrena Arsuaga.

Aurkezlea: Aitor Goya Escudero.

Antolatzaileak: Cesar Etxeberria Saez eta Mikel Kolomo Gurbindo.

Mirristi Drimtin (Iruñea)

Bertsolariak: Oskar Sanz de Acedo Pollán, Mielanjel Ortiz de Guzman Iriarte, Unai Uberetagoena Oyarzabal eta Alberto Arce Serrano.

Aurkezlea: Gustavo Ortiz de Barrón Marroquin.

Antolatzailea: Asier Saragueta Iratzoki.

Patioko banda (Barañain)

Bertsolariak: Mikel Lasarte Cia, Ainara Ieregi Aranburu, Sarai Robles Vitas, Enma Murillo San Martin, Ainhoa Sabuki Arenaza, Amaia Lasheras Zapata, Zuhara Zaratiegi Lopez, Idurre Villanueva del Burgo eta Beñat Astiz Isasi.

Aurkezleak: Idurre Villanueva del Burgo eta Ainhoa Sabuki Arenaza.

Antolatzailea: Sarai Robles Vitas eta Ainara Ieregi Aranburu.

Pirini Bardó (Pirinioak)

Bertsolariak: Ibai Carballo Ernaga, Imanol Ubau Galarza, Fernando Ziganda Urdanpileta , Aitor Zazpe Urmeneta, Karine Etxeberri Goihenetxe, Txentxo Hernandez Errea, Amaia Nuño Milagro eta Aritz Gale Albeniz.

Aurkezlea: Txentxo Hernandez Errea.

Antolatzaileak: Txentxo Hernandez Errea, Fernando Ziganda, Aritz Gale Albeniz eta Amaia Nuño Milagro.

Sakana Zirt (Sakana)

Bertsolariak: Idoia Granizo Uribarrena, Eneko Lazkoz Martinez eta Unai Artieda Estanga.

Aurkezlea: Jon Arratibel Irurtzun

Sakana Zart (Sakana)

Bertsolariak: Joxema Leitza Razkin, Joseba Andoni Beltza Bengoetxea, Ekain Alegre Gil eta Saats Karasatorre Martinez.

Aurkezlea: Jon Arratibel Irurtzun.

Antolatzailea: Joseba Andoni Beltza

Topa bardo kopa! (Iruñea)

Bertsolariak: Saioa Alkaiza Guallar, Irati Majuelo Itoiz eta Ander Perez Argote.

Aurkezlea: Eider Madina.

Antolatzaileak: Garazi Robles Vitas, Ana Bengoetxea Irigoien eta Haizea Beruete Lopetegi.

Unibertsolariak (Lesaka)

Bertsolariak: Eneko Fernandez Maritxalar, Iban Garro Alzuri, Josu Sanjurjo Alzuri eta Jon Silveira Etxeberria.

Aurkezleak: Maddalen Arozena Fresneda eta Iratxe Muxika Karrion

Antolatzaileak: Estitxu Arozena Albizu, Ane Telletxea Igoa eta Uxue Mesa Garmendia.

Xirristi Drimtin (Iruñea)

Bertsolariak: Xabier Terreros Gartzia, Aritz Saragueta Iratzoki, Martin Azpiroz Aldaregia eta Mikel Juaniz Juanena.

Aurkezlea: Xabier Zarraluki Bezunartea

Antolatzailea: Ines Castiella Imaz

Saioen egutegia

| EGUNA | LEKUA | ORDUA | ZER | TAKDEAK |
|-------------|-----------------------------------|-------|-----------------|--|
| Otsailak 2 | Berako Katakua taberna | 20:30 | Bertso-merendua | Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi - Sakana Zirt |
| Otsailak 3 | Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarte | 18:00 | Bertso-merendua | Mirristi Drimtin - (Larraun da Araitz) Bi dozena |
| | Leitzako Atekabeltz Gaztebxean | 18:00 | Bertso-merendua | Aldatzea komeni - Topa bardo kopa! |
| Otsailak 4 | Barañaingo Akelamendi taberna | 18:00 | Bertso saioa | Barakinak - Pirini Bardó |
| Otsailak 9 | Lesakako Arrano elkarte | 19:00 | Bertso-merendua | Unibertsolariak - Barakinak |
| | Barañaingo Gaztebxean | 19:00 | Bertso-merendua | Patioko Banda - Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi |
| | Lakuntzako Sorginak tabernan | 20:00 | Bertso saioa | Sakana Zart - Addams familia |
| | Otsagiko Garbot elkarte | 19:00 | Bertso-merendua | Amortziaren eliobak - Xirristi Mirristi |
| Otsailak 10 | Errazkingo Txirrika elkarte | 17:30 | Bertso-merendua | (Larraun da Araitz) Bi dozena - Lizaharrak |
| Otsailak 11 | Barañaingo Haizea elkarte | 18:00 | Bertso-merendua | Barañetak - Sakana Zart |
| Otsailak 16 | Altsasuko gaztebxean | 21:00 | Bertso saioa | Sakana Zirt - Patioko banda |
| | Lizarrako Gure Hizkuntza elkarte | 19:30 | Bertso-merendua | Lizaharrak - Mirristi Drimtin |
| | Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarte | 20:30 | Bertso saioa | Xirristi Drimtin - Aldatzea komeni |
| Otsailak 17 | Iruñeko Alde Zaharreko Gaztebxean | 19:00 | Bertso-merendua | Topa bardo kopa! - Amortziaren eliobak |
| | Garraldako Etxabarrengo Elkarte | 19:30 | Bertso saioa | Pirini Bardó - Unibertsolariak |
| | Elgorriagako ostatuan | 18:00 | Bertso-merendua | Addams familia - Barañetak |

Txapelketaren egitura

1.fasea

| A multzoa | B multzoa | D multzoa | E multzoa | F multzoa |
|-----------------|-------------------------------|---------------------------------|----------------|---|
| Pirini Bardó | (Larraun da Araitz) Bi dozena | Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi | Barañetak | Xirristi Drimtin |
| Unibertsolariak | Lizaharrak | Sakana Zirt | Sakana Zart | Aldatzea komeni |
| Barakinak | Mirristi Drimtin | Patioko banda | Addams familia | Topa bardo kopa! Amortziaren eliobak |

2.fasea

A eta B multzoetako lehenak

D eta F multzoetako lehenak

E multzoko lehenak eta F multzoko bigarrenak

Finala

Lekunberriko Toki Alai sagardotegian jokatuko da Bardoak 2018ko finala, martxoaren 24an. Bigarren fasetik sailkatutako hiru taldeak arituko dira kantuan, guztira bederatzi bertsolari gutxienez.

Arratsaldeko saioa izango bada ere, egun osoko festa eguna bihurtuko da. Azken urteotan bezalaxe, final honek lehiatzaragoko bertsolaritzaren festa handia izan nahi du.

Webgunea

Bardoak 2018 Nafarroako taldekako bertso egitasmoaren informazio osoa eta eguneratua (parte-hartzaileak, saioak, albisteak, finalerako sarrerak nola eskuratu, saioetako argazkiak...) www.bertsozale.eus atarian egonen da. Horrez gain, sare sozialetan ere (Facebook eta Twitter) aurtengo edizioaren xehetasun guztiak emango dira eta bertsoa.eus atarian saioetako bideo bildumak jarriko dira ikusgai.

Babesleak

Saioak antolatuko diren hainbat herri eta bailaretako udalek babestu dute proiektua. Edizio honetako babesle izango dira Lekunberriko Udala, Larraungo Udala, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Fundación Caja Navarra, Altsasuko Udala, Aezkoako Batzarren Nagusia, Barañaingo Udala, Berako Udala, Iruñeko Udala, Leitzako Udala, Lizarrako Udala, Malerrekako Mankomunitatea eta Zaraitzuko Batzordea.

Era berean, hainbat izango dira txapelketako hedabide laguntzaileak. Hauxek, hain justu: Berria, Noticias de Navarra, Argia, Gaztezulo, Euskalerrria Irratia, Gaztezulo, Guaixe eta Xorroxin Irratia.

Egin beharreko lanak

| 1. FASEA | 2. FASEA | 3. FASEA |
|--|---|--|
| <ul style="list-style-type: none">• Hasierako agurra, taldeka (puntuagarria)• Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian• Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian• Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian• Bakarka, gaia eta oinak emanda, bi bertso Habanera doinuan• Binaka, egoera emanda, minutu bateko bina txanda segidillaren doinuan• Bakarka, gaia emanda, bi bertso doinu eta neurri librean• Banaka, zortziko txikian, puntu banari erantzun (taldeko hiru kidek)• Pertsonaia asmatu: Binaka, galde-erantzunean, pertsonaia ezkutua nor den asmatu beharko du batek, gehienez hiru minutuko tartean (talde bereko bi partaide).• Binaka, egoera emanda, launa kopla• Puntukako saioa taldekideen artean ohikoa ez den doinuan (sei bertso osatu arte), egoera emanda.• Bukaerako agurra (ez puntuagarria) | <ul style="list-style-type: none">• Hasierako agurra, taldeka (puntuagarria)• Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian• Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian• Binaka, gaia emanda, hiruna bertso Iparragirre doinuan• Tabu jolasa: Hirunaka, galde-erantzunean, aukeraturako hitza asmatu beharko dute bi kidek, hirugarrenak erantzunetan hiru hitz ezin erabillita, gehienez hiru minutuko denbora tartean (talde bereko hiru partaide)• Binaka, gaia emanda, bi bertso zortzi puntuko 16ko berdinean (adib, Habanera), erdi eta erdi (talde bereko bi partaide)• Binaka, egoera emanda, minutu bateko bina txanda segidillaren doinuan• Binaka, egoera emanda, launa kopla• Banaka, zortziko txikian, hiru punturi erantzun• Bakarka, gaia emanda, bi bertso doinu eta neurri librean• Puntukako saioa taldekideen artean ohikoa ez den doinuan (sei bertso osatu arte)• Bukaerako agurra (ez puntuagarria) | <ul style="list-style-type: none">• Hasierako agurra, taldeka (puntuagarria)• Zortziko handian binaka gaia emanda hiruna bertso• Zortziko txikian binaka ofizioka hiruna bertso• Sei puntuko motzean binaka ofizioka hiruna bertso• Zortziko txikian hiru punturi erantzun• Objektu bati bertso bana• Hirunaka, egoera emanda, minutu bateko bina txanda segidillaren doinuan• Binaka, egoera emanda, launa kopla artean (taldeko bi kide)• Bakarka, gaia emanda, bi bertso doinu eta neurri librean• Gaia emanda, hiruko ofizioa, bina bertso osatu arte• Puntukako saioa taldekideen artean ohikoa ez den doinuan (sei bertso osatu arte)• Bukaerako agurra, banaka (ez puntuagarria) |

Bardoen inguruko edozein informazio nahi izanez gero, deitu 691261896 telefonora
edo idatzi nafarroa.sustapena@bertsozale.eus helbidera

Iruñean, 2017ko urtarrilean,

